

nik

ERRENTERIAN

ERRENKOALDEREN
ALDIZKARIA

© Valentin Foto Bideoa

Gertu, benetakoa, gurea.

Jarrai dezagun
etxekoa aukeratzen!



31 URTE LANEAN, ETA AURRERA

Hiru hamarkada pasatxo bete ditu Errenkoalde. Urte horietan guztietan asko ikasi eta jaso dute Erretereriako dendari, ostalari eta zerbitzu establezimenduek. Aurrera begirako erronkei aurre egiteko prest dira.

Iaz bete zituen 30 urte Errenkoalde. Horren harira erakusketa ibiltaria jarri zuen herriko hainbat tokitan, tartean, Gamon Zumardian.

hurbileko komertzioa horretarako oso baliagarri dela uste baitu Errenkoalde. Nortasun propioa duen udalerria da Erretereria, eta merkatarien, ostalarien eta zerbitzu establezimenduen elkarte eta horren barruko bazkideak egunero-egunero ari dira horren alde lanean. 180 bazkide ditu egun.

31 urtek askorako ematen dute. Aldaketa asko izan ditu Erretereriak hiru hamarkada horietan. Hiriaren erritmoaren arabera garapena izan du, beraz, Errenkoalde. Eroste eta kontsumitzeko ohituren aldaketa nabarmena izan da, baita ekonomia ulertzekoarena ere. Teknologiak ere oso nabarmen aurrera egin du, eta berritasun horiek baliatzen saiatzen ari da elkarte herritarren aurrean are erakargarriagoa izateko.

Errenkoalde duela 31 urte jaio zen herriko dendarien arteko sinergiak batu eta indartsuago izateko. Merkatariek, ostalariak eta zerbitzu negozioak batzen ditu elkarteak. Egun, hiru hamarkada pasatxo igaro direnean, espirtu horrekin jarraitzen du lanean. Bazkide guztien misioa, bakoitzaren negozioa aurrera ateratzeaz gain, Erretereria herri bizia izaten jarraitzea da,

ARGITARATZAILEA:

ERRENKOALDE ELKARTEA
Beheko kalea, 2 • 20100 Erretereria
Tf. 943 51 45 53 / 687 34 31 80
E-mail: errenkoalde@errenkoalde.org
Webgunea: www.errenkoalde.com

KOORDINAZIO ETA KAZETARITZA LANAK:

Oiartzualdeko Hedabideak.

DISEINUA:

BIDERA zerbitzuak (BERRIA Taldea)

MAKETAZIOA:

Oiartzualdeko Hedabideak.

nik 
ERRETERIAN

e **errenkoalde**
merkatariak, ostalariak, eta zerbitzu elkarrekin
asociación de comercio, hostelería y servicios



ERRETERERIA
UDALA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Errenkoalde ya ha cumplido 31 años aportando desde la cercanía, calidad y experiencia a que Erretería sea un pueblo más vivo. Pero en tres décadas las costumbres de consumo han cambiado mucho. Los/as 180 asociados/as de Errenkoalde están inmersos/as de pleno en todos los cambios que conlleva la revolución digital en el comercio. Están tratando de evolucionar para conectar con esa ciudadanía que exige autenticidad, sostenibilidad, y experiencia.

Maika Martin da elkartearen presidentea. Haren ustez, eta Errenkoalderen bilakaerari errepasoa emanaz, hasiera batean herriko establezimenduen elkargunearen zeregina karpaina komertzialetara mugatu zen, «baina urteen joan-etorrian aurrera urratsak egin ditugu dinamizazio urbanoan, eta herria eraldatzeko prozesuetan parte hartu dugu Erreteriako Udalaren eta Oarsoalde Garapen Agentziaren bitartez abian den Hiri Ekonomiarako Aholku Batzordeko kide garelako». Nabarmendu du hainbat erakunderekin elkarlanean ari dela Errenkoalde, eskualde eta herrialde mailakoak horiek, «gure ingurunea hobetu eta garai berrietara egokitzeko»

HERRITARREKIN BATU

Martinek azaldu du egun Errenkoalde duen erronkarik handiena herritarrekin batzea dela. Garai batean tokiko dendek zuten tokia berreskuratzea, erreteriarrek nahiz herrira erostera eta kontsumitzera etortzen direnak are gehiago hurbiltzeko saiakerak eginez. «Ondo dakigu erosketak egiteko moduak aldatu egin direla: erosotasuna, azkartasuna, prezio merkeak eta bestelakoak eskatzen ditugu. Baina jakin badakigu tokikoaren aldeko jarrera dutela herritarrek, eredu jasagarrien alde daudela, hurbilekoa apreziatzen dutela. Gure erronka da herriko biztanleek senti dezatela Erreterian erostea, praktikoa izateaz

gain, guztion denaren alde egitea dela. Egunero-egunero tokiko komertzioa erdigunean izatea nahi dugu».

Erdigunera iriste horretan ezinbestekoa da digitalizazioaren erronkari eustea. Aurre egin baino, horrekin era iraunkorrean bat egitea. Baina hori zaila da, komertzio, denda, ostalaritza gune edo zerbitzu establezimendu bakoitzaren ekosistema txiki baten antzekoa delako. «Errenkoaldetik, eta elkarlana zabalik dugun erakundeen partetik, digitalizazio prozesu horretan laguntza ematen ari gara. Formazioa, baliabideak eta aholkularitza ematen ari gara. Baina kontziente gara digitalizazioa ez dela soilik webgune bat izatea, edo online saltzeko zerbitzua izatea. Komunikatzeko, herritarrengana iristeko forma berriak ere baliatu behar ditugu, bezeroak erakarri eta fidelizatzeko. Horrek denbora, estrategia eta elkar-laguntza asko eskatzen ditu», zehaztu du Martinek.

Bide horretan gazteekin eta haiek egun dituzten balioekin bat egin nahi du Errenkoalde. Ziur dira gazteek benetakotasuna, iraunkortasuna eta esperientzia baloratzen dituztela, eta tokiko komertzioak balio horien guztien jabe dira. «Baina hori guztia ondo adierazten jakin behar dugu, gazteen hizkuntza hitz egin behar dugu, eta haien kanaletan presente egon behar gara», uste du Martinek: «Gazteek jakin dezatela Erreterian erostea modernoa, erosoa eta oso baliagarria izan daitekeela».

31 urteko bidea elkarrekin egin dute Erreteriako dozenaka eta dozenaka komertzioak. Bide hori guztia ospa daiteke, baina batez ere baliagarri izan behar da etorkizunerako eraiki daitekeenaren berme izateko.

«Gure bazkide direnetan eros-

ketak egiten dituztenei gauza bat esan nahi diet: eskerrik asko. Eskerrik asko herri honek bizia izan dezan laguntzen ari zaretelako, eta aldi berean, elkartuago egongo den komunitate bat eraikitzen ari zaretelako», berretsi du Errenkoaldeko presidentek.

«Errenkoalde ha
evolucionado
al ritmo de la ciudad»

«Queremos que
el comercio local
vuelva a estar en
el centro día a día»

«La juventud valora
la autenticidad,
la sostenibilidad
y la experiencia.
El comercio local
tiene todo eso»

Uste orokorra da gazteek ez dutela herriko komertzioetan kontsumitzen. Baina, hala al da? Bost gazterekin hitz egin du Errenkoaldek euren ohituren berri izateko.

Herriko gazteek herrian kontsumitzen al dute? Haiek dira herriko establezimenduek aurrera egin dezaten gaur eguneko eta etorkizuneko bezeroak, baina, azken urteetako kontsumo joeren eraginez aldaketak izaten ari dira erosketak egiteko moduan. Emaizta zientifikoa izateko asmotik urrun, bost gazterekin hitz egin du Errenkoaldek orokorrean herriko establezimenduez duten iritzia jakiteko. Oihane Casamayor, Adur Ferradas, Eider eta Leire Mendia, nahiz Ekain Ruiz dira gazte horiek, denak 19-26 adin tartean daude.

Hasteko, ia denek adierazi dute oro har herriko komertzioetan gutxi kontsumitzen dutela gazteek, bertako dendetan noizbehinkakoak eta sektorearen araberakoak direla haien erosketa ohiturak. Adibidez, Oihaneren eta Eiderren esanetan arropa salmenta guneetan ikusten dute gabeziarik handiena, gazte askok merkataritza gune handietara edo Internetera jotzen dutelako gisa horretako produktuen bila. Ekainek ñabardura egin du: «Ostalaritzari dagokionez herriko gazte gehienek herrian kontsumitzen dute, herrian geratzeko joera handia dute».

Internetez ere egiten dituzte erosketak. Bost gazteek joera hori oso orokorra dela baietsi dute. Hori, erosotasunagatik, azkartasunagatik, prezioengatik, edo Interneten edozein produkturen gaineko aukera oso zabala dagoelako izan daitekeela adierazi dute, «errazagoa da Interneten erosketak egitea, sofatik ere egin daiteke», esan du Oihanek. Hala, tokiko establezimenduek duten garrantziaren gaia ez da apenas ageri euren elkarrizketa edo eztabaidetan, hala berretsi dute bostek. «Baina egia da establezimenduren bat ixten denean edo berriren bat zabaltzen denean lagunartean komentatzen dela», zehaztu du Eiderrek.

ZER DIOTE GAZTEEK?

¿La juventud de Errenteria tiene el hábito de consumir en el comercio de la villa? Errenkoalde ha recogido la opinión de cinco jóvenes de entre 19 y 26 años. Todos/as han manifestado que la juventud no tiene un especial apego por el comercio local, pero que cuando les hace falta, no dudan en comprar en Errenteria. Han valorado positivamente las campañas de bonos que lanzan Errenkoalde y el Ayuntamiento, pero ven muy difícil poder abrir un negocio o dar relevo a los/as familiares que tienen uno. Pero no imaginan una Errenteria viva sin el comercio local.





Udalak eta Errenkoaldek herritarren artean eta gazteekin bereziki herrian erosteko ohitura sustatzeko bonuen hainbat kanpaina egin dituzte. Bonu horiek erabiltzen ote dituzten galdetuta, denek aho batez baietz esan dute, «oso baliagarriak dira eta erabiltzen ditugu». Jakitun dira bonu horiek erabiltzea lagungarri zaiela herriko komertzioei, eta gainera, denda gehiago ezagutzeko aukera dutela, «bestelakoan erosteko ez nituzkeen produktuak erosteko erabiltzen ditut nik», esan du Eiderrek.

ETORKIZUNA

Errenkoalde gogor ari da lanean gazteek herrian komertzioak irekitzeko zereginean. Udalaren laguntza du lan horretan, eta hainbat egitasmo eta programa garatzen ari dira lankidetzan. Gainera, beste arazo bat detektatu du Errenkoaldek: errelebo falta. Hau da, erretiratzear diren dendari eta ostalariek zailtasunak dituzte haien negozioa nork hartu; familia barruko erreleboa ere ez dago bermatua.

Gazteen arabera, gehienek ez dute ikusten lan aukera bezala tokiko establezimendu bat zabaltzea, ikusten dutelako lan nekeza dela komertzio txiki bat aurrera ateratzea, eta gainera, egin beharreko inbertsio ekonomikoa ere handia dela uste dute. «Baina badira ere urte batzuk bere lanean ibili eta gero familia negozioa bueltatzen diren gazteak», zehaztu du Adurrek. Negozio berri bat zabaltzekotan, gazteen joera hori online bidezkoa izatea dela azaldu du Eiderrek, «eta behin online enpresa hori sendotzen denean erabakitzen da askotan denda fisiko bat jarri edo ez».

Tokiko merkataritzak etorkizunik ote duen galdetuta, argi izpia helarazi dute oro har Errenkoalderekin hitz egin duten bost gazteek. «Bai» biribilarekin erantzun dio galderari Eider Mendiak; Ekainek, zailtasunak zailtasun, merkataritza txikiak bezeroak «beti» izango dituela adierazi du; eta Leire Mendiaren aburuz hainbat zerbitzuek ez dute lanik faltako, «ile-apaindegiek eta liburu dendek adibidez». «Nahitaez izan behar dute etorkizuna tokiko merkataritza dendek», desio du Adurrek: Ezinezkoa egiten zait guztia saltoki handietan eta Internet bidez erosten duen herri bat imajinatzea».

HERRIKOAK, HERRIAN, HERRIARENTZAT

Iazko apirilean zabaldu zuten Bixigarri Gastroteka, eta urtebete geroago Bite taberna. Alex Oier Olarra-Gonzalez, Andoni Balda eta Imanol Lasa dira Biteri kaleari, eta herriari bizia eman dioten proiektu horien bultzatzaileak Ostariren babespean.

Azken bi udaberriek bizia eman diote Biteri kaleari, eta Erreteriarri. Alex Oier Olarra-Gonzalez, Andoni Balda eta Imanol Lasa erreteriarrek erabaki zuten euren bizitza planaren barruan herrian inbertitzea. Iazko apirilaren 18an Bixigarri Gastroteka zabaldu zuten, eta aurtengo apirilaren 24an Bite taberna. Ostariko kide dira bi ostalaritza guneak, Errenkoalderen barruan den ostalarien elkartearen barrukoak, alegia. Gazteak dira, herrikoak, eta herriaren alde apustu sendoa egin dute, herriarentzat. «Pozik hasi dugu bidea, gustura gaude, batez ere herriak egindako harrerarekin. Aurretik landua genuen Bixigarriren proiektua, baina ez genuen espero lehen unetik izan dugun jarraipena», azaldu du Alex Oier Olarra-Gonzalezek.

Bixigarri egitasmoa garatzen hasi ziren lehenik buru-belarri. «Ondorenean Bite izena jarri dioguna hartzeko eskaintza egin ziguten. Hainbat egitasmo genituen buruan, baina hori ez zehazki. Zer egin erabaki, eta aurrera egin genuen», azaldu du Olarra-Gonzalezek. Nabarmendu du bi ostalaritza establezimenduen inguruan dauden merkatariek eskertu dietela



egiten ari diren lana, bi negozioek jende mugimendu berpiztu dutelako Biteri kalean, bizia eman diotela garai batean bor-bor izaten zen Erdiguneko kaleari, «Biteri berriz ere zenera itzultzen hasi dela esan digute». Kalitatea, gertutasuna zentzurik zabalenean —zerbitzuan, tokiko produktuak baliatzean, eta euskararen erabilera lehenestean— eta gaztetasuna dira haien lanerako hiru ardatzak. «Gure gaztetasuna egiten dugun gauza guztietara eraman nahi dugu. Bixigarrik ezaugarri gastronomikoagoak ditu; Bite elkartzeko gune bat da gehienbat, gastronomia alboratu gabe».

Ostariko kide dira bai Bixigarri eta Bite. «Gure aurrezkiak inbertitu ditugu bi proiektuetan, eta bankura ere joan behar izan gara finantzazioa lortzeko. Gure gurasoen garaian agian aurrezkiekin etxea eros zitekeen; guk, egoera nola dagoen ikusita, negozio hauek zabaltzearen alde egin genuen». Ostariren babespean dute, uste dute elkartearen barruan izatea onuragarri dela.

IGARRI

gastrot
BIXIGARRI



La calle Biteri es otra desde el año pasado. Han abierto sus puertas dos nuevos establecimientos de hostelería: Bixigarri Gastroteka y Bite, ambos miembros de Ostari. Detrás de los dos proyectos están tres jóvenes de la villa, Alex Oier Olarra-González, Andoni Balda e Imanol Lasa. Su propuesta se basa en la calidad, cercanía y juventud. Han dado vida a la calle, y animan a la juventud de Erreñerria a basar sus proyectos de vida en nuestra localidad.

Desde que han abierto Bixigarri y Bite la calle Biteri ha recobrado vida

Los responsables han animado a la juventud a invertir en la villa

«Beti esaten dugu Erreñerrian gastronomiari kalitatea eman behar zaiola. Eta badaude herrian, gutaz gain, oso maila handiko establezimenduak». Traineruen adibidea egin du Olarra-Gonzalezek: «Herriari bizia eman nahi badiogu, guk bakarrik ezin dugu. Herrian eskaintza oso on asko dago, eta sana da aukera asko izatea. Horren alde gaude. Denentzako dago lana hemen. Erreñerria kalitatearekin eta lan onarekin harremantzea nahi dugu, eta bide horretan ari garela uste dugu. Herri osoaz ari naiz. Herria egitea dago gure xedeen artean. Herri bizi bat. Denok batera egin behar dugu arraun».

GAZTEEI DEIA

Merezi al du, hiru bazkide gazte horiek egin duten moduan, herriko tokiko establezimenduen aldeko apustua egitea? Hala erantzun du Olarra-Gonzalezek: «Norberaren arabera dago hori. Gustuko duzuna egiten baduzu, guztiz merezi

du. Horrela, lanean ez zaudenaren sentrazioa izango duzu, zure proiektuaren alde ari zara, eta gainera herriari ekarpena egiten. Adibidez, Don Vitokoek futbito txapelketa antolatzen dutenean ez dute lan bezala hartzen, gozamina da haientzat. Bada, gure sentipena antzekoa da. Baina gustuko ez duzun gauza bat egiten hasten bazara, infernua bilakatzen da dena».

Ekintzaile erreñerriarrak gazteak animatu ditu euren negozio propioen alde egitera, herrian establezimenduak zabaltzera, dituzten ametsak herrian gauzatzen has daitezen ausartzera. Azaldu du aurrera begira badituztela egitasmo gehiago, baina denbora behar dutela horiei ekiteko, bi negozio zabaldu berri dituztelako eta arnasa hartzeko denbora behar dutelako. «Gure ardatza herrian jarri dugu. Gure nortasunaren zati da hori. Egoerek lagundu behar dute, nola ez. Baina gure desioa da, eta gazteei dei hori egin nahiko genieke, tokiko establezimenduen bitartez herriari bizia ematea».



Rosa Prado y Alex Ferrera consumen en su frutería 2.000 bolsas reciclables cada quince días. La mitad de su clientela está concienciada, y lleva su propia bolsa de casa para hacer la compra, pero la otra mitad acude sin ella. Creen que es importante seguir trabajando la concienciación por medio de campañas para atajar el problema que está generando el consumo excesivo de plástico.



PLASTIKOZKO POLTSEN

KONTSUMOA, BURUHAUSTE

Azken aldian jaitsi egin da erosketak egiterako orduan etxetik poltsak eramaten dituztenen kopurua.

Errenkoalderentzat kezka iturri da hori, eta azken urteetan hainbat kanpaina egin ditu.

Plastikoak 100 eta 1.000 urte artean behar ditu erabat degradatzeko. Plastikozko poltsa baten kasuan 55 urte beharko dira, baina material bereko botilak 500 urte beharko ditu. Plastikoaaren ekoizpena eta kontsumoa murriztea premiazkoa da. Horren jakitun da Errenkoalde, eta hainbat kanpaina egin ditu azken urteetan poltsa berrerabilgarrien erabilera sustatu eta plastikozko poltsen kontsumoa murrizteko.

Kontzientzia badago ere erosleen artean, asko erlaxatu da erosketetarako poltsa etxetik eramateko ohitura, eta gora egin du horien kontsumoak. Horrek Errenkoalderen kezka piztu du: «Ez gara kontziente duen garrantziaz eta gogoraraztea dagokigu jendea ohar-tu dadin zein kaltegarria den kontsumo arduragabe hori egitea». Gehienbat fruta denda, arrandegi eta harategietan nabaritu dute plastikozko poltsen erabileraren gorakada, «urtero poltsa berrerabilgarrien banaketa egiten dugu, azkena azokan egin genuen, eta komenigarria izango da horretan jarraitzea».

Rosarito fruta dendako Rosa Prado Arrietak eta Alex Ferrarak bide luzea dagoela egiteko diote: «Birziklatzeko kontzientzia garatzeko asko falta da. Gure bezeroen erdiak ekartzen du etxetik poltsa, eta beste erdiak ez. 15 egunero 2.000 poltsa birziklatu gastatzen ditugu hemen, handiak eta txikiak». Kontuan hartzeko kopu-

rua dela azaldu dute, eta euren esku dagoena egiten dute birziklatzearen aldeko kontzientzia sustatzeko: «Batuetan astun samarrak ere bagara. Izan ere, asko dago jokoan, ingurumena ikaragarri kaltetzen ari gara».

Poltsak kobratzeko neurriaren gainean galde-tuta, jendeari ez zaiola gehiegi axola ordaintzea nabarmendu du Pradok. «Berehala esaten digute 'kobratu poltsa'. Baina ez da hori neurriaren atzean dagoen xedea; helburua ez da poltsekin dirua irabaztea, horiek kobratuta berrerabilera-ren aldeko kontzientzia sustatzea baizik».

Kontzientzia handiena gaiaren gainean gazteek dutela dio Ferrarak. «28 eta 35 urte arteko gazteak dira poltsa ekartzen dutenak gehienbat, hortik eta 60 urtera arte erdia eta erdia izango dira, eta helduenak gurdiaekin etorri ohi dira, baina erosketak bertan sartzeko poltsa eskatzen dute». Bat egin du Pradok, gazteak dira kontzientzia handiagoa dutenak birziklatzearen gainean, «poltsak ongi daude, baina erabilera egokia eman behar zaie».

KONTZIENTZIAZIO LANA

Bidea zein den argi dute Pradok eta Ferrarak: «Kanpainak egiten jarraitu behar dugu, poltsa berrerabilgarriak oparitzen bezeroei, eta gaiaren garrantzia behin eta berriro errepikatu... lortuko da, baina bideak luze joko du». Beste bide bat ere proposatu du Ferrarak, birziklagarriak diren poltsen ordeztu, konpostagarriak direnak izateko negozioetan, eta diru laguntza larroak zabaltzea».

Egoeraren larritasunari erreparatu dio Pradok: «Plastikoz inguratuta gaude eta premiazkoa da horren kontsumoa murriztea berandu baino lehen. Garrantzitsua da erosketak egitera joaten garenean, baita saltoki txikietara ere, etxetik poltsa hartuta joatea. Denok egin behar dugu esfortzu txiki bat, denon hobebeharrean».



MOVILIZAR LOS LOCALES VACÍOS, PARA DAR VIDA A LOS BARRIOS

Dotar de vida y actividad a los locales que están cerrados. Esa es una de las líneas de trabajo del Ayuntamiento de Errenteria que dió inicio en el año 2022 a un programa de subvenciones a fin de movilizar los locales vacíos. El objetivo: la revitalización del municipio. Errenkoalde participa en ese programa.

Movilizar los locales que están sin actividad. Ese es el propósito del Ayuntamiento de Errenteria y Errenkoalde. Además de lograr barrios más atractivos, la medida supone un impulso inquestionable a la economía local. Ayuntamiento y Errenkoalde van de la mano en ese quehacer. La desaparición del comercio en los barrios afecta a diferentes niveles, según apunta Errenkoalde: «Es una demanda que tenemos, porque nos interesa que haya vida comercial, actividad económica, que los locales estén ocupados. Mas allá del comercio local, hablamos de dotar a los barrios de economía urbana».

Tres años después de iniciar esa línea de trabajo, Leire Mazizior, concejala de Comercio valora positivamente la iniciativa. «Hace años que el Ayuntamiento quiere impulsar la economía



Desde la institución local apuestan por un modelo de ciudad polinuclear basada en el modelo de 'auzo-bihotzak'. «La clave es que cada barrio tenga la capacidad suficiente para satisfacer las necesidades diarias de la ciudadanía». Para ello, y para que los espacios urbanos sean

acogedores, cree imprescindible impulsar la actividad económica local, «ya que de esa manera garantizamos un barrio vivo y dinámico, que da servicio a quienes lo habitan».

El Ayuntamiento ha destinado a esa línea de ayudas de 200.000 euros en los años 2022-2023, 100.000 eu-

ros para cada año, pero incrementó la partida inicial en 40.000 euros el primer año, y en 50.000 euros el segundo. El montante total fue, por tanto, de 290.000 euros. En total se admitieron 36 solicitudes: 20 para negocios nuevos, 10 para nueva ubicación de negocios, y 6 por transmisión.

Mazizior ha destacado el éxito de la convocatoria: «Superó las expectativas iniciales. Por ello se ha vuelto a activar en el 2024-2025. Hasta el momento se han aceptado 21 solicitudes».

IZTIETA

Tener en cuenta la realidad de los locales vacíos es indispensable para la reactivación del comercio en Erreterria, y eso requiere de una actitud proactiva y la puesta en marcha de varias vías. En ese sentido, Mazizior ha destacado que el consistorio ve oportuno incidir en el barrio de Iztieta, «con la construcción del nuevo barrio de Alzate y la reforma de las instalaciones de Ondartxo, el flujo de personas crecerá en la zona, y el barrio va a renovarse».

El primer paso va a ser la identificación de locales vacíos en el barrio, y su posterior catalogación. Después, en estrecha colaboración con las personas propietarias, pretenden acor-

local en colaboración con los agentes del municipio, para mejorar, en la medida de lo posible, la situación actual».

Es de sobra conocido que la economía urbana y el sector del comercio están inmersos en un continuo proceso de transformación en las últimas décadas; «han cambiado las costumbres para comprar, y la pandemia también ha tenido gran influencia. Todo ello ha llevado a que el comercio esté viviendo una evolución demográfica negativa». Mazizior destaca que eso repercute también en la transformación física del entorno urbano, en un escenario en el que el número de locales vacíos va aumentando, «el declive del sector influye en el día a día de la dinámica del barrio y la relación de las comunidades, debilitándola y desfigurándola».



dar las condiciones para el alquiler, y tras ello, poner en contacto a propietarios/as y personas emprendedoras. «Para ello trabajaremos mano a mano con Oarsoaldea Garapen Agentzia, Agustinak Zentroa y Torrekua, aunque la oferta será abierta y se mostrarán las fichas características de los locales vacíos en una página web».

Errenkoalde también ha valorado positivamente la línea de subvenciones, y cree que es una estrategia adecuada: «El reto es grande, pero creemos que merece la pena el esfuerzo. Con la rehabilitación de los locales se rompe esa imagen de abandono que en algunos momentos se puede dar».

La asociación, además, ha posicionado a Iztieta entre los barrios que más ha sufrido con el cierre de locales. «Es un barrio con muchas posibilidades, tiene muchos habitantes, es llano, cómodo, y el vecindario hace barrio; hay vida, y eso le otorga un gran potencial».

Hutsik dauden lokalak mobilizatzeko diru laguntza lerroa sortu zuen Errenteriako Udalak 2022. urtean. Lehen bi urteetan 290.000 euro bideratu zituen, eta 36 eskaera onartu. Neurriak izan duen arrakasta ikusita, 2024-2025 ikasturtean ere martxan da diru laguntza lerroa, eta momentuz 21 eskaera jaso ditu udalak. Lokal hutsak mobilizatzeko programaren bidez tokiko ekonomia sustatu, tokiko merkataritza suspertu, eta auzoei bizia eman nahi die, 'auzo-bihotzen' ereduan oinarrituta hiri polinuklearra sortuta.

Bide horretan, lokal hutsen aktibazio hori Iztieta auzora eramatea erabaki du udalak. Altzate auzo berria eraikitzeak, eta Ondartxo eremuko instalazioak berritzeak aukera direla sinistuta dago, auzo horretara joko duen herritar fluxua areagotuko delako.

Errenkoalderekin elkarlanean adostutako bidea da, diru laguntza lerroaren aktibazioa bezala. Elkartearentzat egokia da neurria, Iztieta delako haren esanetan lokal itxiera gehien pairatu duen auzoa, eta auzo bizitza handiko eremua izanik, potentzial handia duelako.



ELEGIR,
COMPRAR,
Y RECOGER

Los establecimientos de Errenkoalde están agrupados en la web 'nikerrenterian.eus'. Desde la página se puede comprar, pagar, y recoger la compra como se desee.

Errenkoalde construyó hace años la plataforma digital 'nikerrenterian.eus'. Es el escaparate online de toda la oferta de los/as asociados/as de Errenkoalde. Por lo tanto, accediendo a la web se abre una gran ventana de oportunidades para comprar en el comercio local de una forma cómoda, rápida y segura. Pero siempre con el aval de la calidad del comercio local.

Hecha la compra, Errenkoalde ha dado respuesta a la pregunta de: '¿Dónde recojo lo comprado?'; hay dos opciones: la primera es ir al establecimiento donde se ha hecho la adquisición; y la segunda se llama Locker, y está en Niessen. Allí se puede recoger lo comprado una vez transcurridas 24 horas del pedido, siempre y cuando no se haya podido hacer esa recogida en el establecimiento seleccionado. No tiene ningún coste adicional.

Errenkoalderen webgunearen bitartez herriko eskaintzaren argazki osoa izan daiteke

Locker es un servicio de taquillas en las que una vez hecha la compra, los comerciantes depositan lo solicitado en el tiempo establecido; cada cliente recibe las necesarias indicaciones para poder acceder a la taquilla y hacerse con lo comprado. «Desde Errenkoalde somos muy conscientes que los hábitos de consumo han cambiado. Tanto la web 'nikerrenterian.eus' como el servicio de taquillas Locker responden a eso, sin renunciar a nuestras señas de identidad: calidad, cercanía y servicio personalizado».

La web también es una oportunidad para visibilizar el comercio local de Erreterria, ya que hay mapas interactivos para buscar y encontrar el producto o establecimiento que se desea de una forma fácil e intuitiva, 24 horas al día.

Aukeratu, erosi eta jaso. Errenkoalderen 'nikerrenterian.eus' webgunearen bitartez erosketak era azkar, erraz eta era fidagarrian egin daitezke. Erositakoak dendetan jaso daitezke, baita Niessenen dagoen Locker takilla zerbitzuaren bitartez ere.

Tokiko merkataritzan, gustura

1_Zer da merkataritza izateko gehien asebetetzen zaituena? ¿Qué es lo que más te llena de ser comerciante?

2_Zer izango litzateke herria komertzio txikirik gabe? ¿Qué sería del pueblo sin el pequeño comercio?

3_Herrian negozio bat irekitzeko ideia duen pertsona bati, zein mezu bidaliko zenioke? ¿Qué le dirías a una persona que esté pensando en abrir un nuevo negocio en el pueblo?



CALZADOS KORO
KORO CARRILLO

1_ El trato con la gente; el trato cercano y ser cercana a la gente.

2_ Sería una tumba. Por ejemplo, en el caso de las fiestas es el comercio pequeño el que arrima el hombro, ya que las casas prácticamente no colaboran. Con la subvención que da el Ayuntamiento, no llega para nada. Muchas cosas se cortarían si no hubiera ayuda del comercio.

3_ Que se armen de valor. Yo soy trabajadora por cuenta ajena, y luego me quedé con el negocio porque se jubilaron los dueños. Toda mi vida la he dedicado al comercio; no he tenido otro trabajo. Los que están por encima de nosotros cada vez te lo ponen todo mucho más difícil. A principios de 2025 han sacado una nueva normativa de fichaje y control horario de los trabajadores, y no vale fichar en papel, se tiene que hacer vía móvil. Por eso, se te quitan un poco las ganas.

Tratu hurbila. Hori da Koro Carrilloren indargunea. Azaldu du komertzio txikirik gabeko herria hilerri antzekoa litzatekeela, eta adibidetzat jarri du auzoetako festei tokian tokiko dende egiten dieten ekarpena. Erakundeen eskakizunek, ordea, berez negozioek duten zama handitzen dutela uste du.



THE MISTER MOBILE
QAMAR SHAHZAD

1_ Lo que más me llena desde que abrí mi tienda en este pueblo es ver cómo la gente confía en mí, me saluda por la calle, y vuelve porque valora lo que hago. Hacen que me sienta parte de la comunidad, y útil para mis vecinos.

2_ Sin los negocios pequeños el pueblo pierde vida, empleo y cercanía. Pero con cada tienda que abrimos encendemos esperanza, generamos trabajo y hacemos comunidad. Si no hay negocios pequeños en mi pueblo, el pueblo se apaga poco a poco.

3_ Les diría que empiecen con algo que la gente necesite de verdad, y que lo hagan bien, que traten a cada cliente como si fuera el/la primero/a. Tenemos que resolver necesidades reales, ser constantes y profesionales. Hay que ganarse la confianza del pueblo con un buen trato.

Qamar Shahzad-ek garbi du komertzio txikietan lan egitea bezeroekin harreman profesional hutsa izatea baino gehiago dela. Zabaltzen den denda berri bakoitzarekin itxaropena pizten dela uste du, eta negozio berri bat zabaldu nahi dutenei esan die jendearen benetako beharretara egokitutako establezimenduen alde egin dezatela.





LEKU ZAHARRA
ITSASO GARAIAR

- 1_ Uste dut politena dela bezeroari eskaintzen diozun zerbitzua. Jende asko etxean bakarrik bizi da, bakarrik dago, eta eskaintzen diezun zerbitzuarekin akonpainamendua ere ematen diezu: haiekin hitz egiten duzu, eta beren gauzak kontatzen dizkizute. Konpainia hori oso handia da haientzat. Ostalaritzan hori da politena nire ustez.
- 2_ Herri huts bat litzateke. Badaude soilik lo egiteko erabiltzen diren herriak. Jendea soilik lotara joango litzateke bertara, eta ez litzateke herritarren arteko harremanik egongo. Jendea bakarrik lotara joango litzateke eta oso tristea litzateke hori.
- 3_ Jende asko bizi den herri bat da, jendea oso fidela da herriarekiko, eta uste dut gero eta gehiago gustatzen zaiola herrian egotea eta kontsumitzea. Inguruko herrietan, turismoaren aferagatik, iruditzen zait jendea bertatik ihes egiten ari dela. Gurea giro handiko herria da, beti daude gauzak. Esfortzuarekin eta lanarekin gauzak ateratzen dira.

Itsaso Garaiar está convencida de que lo más satisfactorio de ser comerciante es el servicio que le da al cliente. Cree en un pueblo que apueste por el pequeño comercio, y pone en valor el ambiente y la vida de Errenteria.



IPAR ASEGUROAK
MARISA RODRIGUEZ

- 1_ Sin duda lo que más me llena de mi trabajo es dar servicio a la clientela. Me gusta satisfacer sus necesidades, buscar los productos que necesita la ciudadanía, y ofrecerles un servicio. Eso es lo esencial en nuestro trabajo y en ello nos movemos.
- 2_ Sin el pequeño comercio Errenteria sería un pueblo más apagado, más gris y más triste. El comercio y sus tiendas dan vida y alegría a la localidad y ese es el motivo para hacer muchas cosas en el pueblo.
- 3_ A alguien que quiera emprender un negocio en el municipio le diría que se anime, que aquí hay una buena ciudadanía y, además, es muy activa. Creo que en Errenteria la gente participa del comercio y del pueblo. Este pueblo tiene mucha vida.

Herritarrei zerbitzua ematea eta haien beharrak asetzeari dira Marisa Rodríguez, merkataria den heinean, gehien betetzen duena. Argi du, komertzio txikirik gabe, herri itzali bat litzatekeela Errenteria, bizitarik gabea, eta uste du herritarrek aktiboki parte hartzen dutela herriaren egunerokoan.



FLORISTERÍA
MARI CARMEN
KARMELE BUENETXEA

- 1_ Dendari, lorazain edo lanbide bat izateaz gehien betetzen nauena da nork bere ezagutzarekin bezeroei lagundu ahal izatea nire ezagutzekin bai ezkontza baterako, hileta-lan baterako, egunerokorako... Hau da, denda bat izateko behar duzun zure ikuspegi sortzailea eskaini ahal izatea.
- 2_ Denok bukatuko genuke ekonomikoki pobretuz, herrian bizia galduz... Jende guztia joango litzateke saltoki handietara edo Internet bidez erostera, eta ez lukete bizitarik egingo herrian.
- 3_ Animo handia izan dezala, energia eta gogo handia beharko dituelako. Hasieran denbora asko daramazunean baino laguntza gehiago dituzu, baina hala ere laguntza gutxi daude. Lehenengo gauza dirua jartzea da. Hasieran ilusio handia duzu, zure proiektua delako, baina dena korapilatzen da.

Ayudar a la clientela. Eso es lo que llena a Karmele Buenetxea. Opina que sin comercio pequeño Errenteria sería mucho más pobre a nivel económico y social, no tendría vida. A los/las que quieran abrir un nuevo negocio les aconseja tener mucha energía y ganas.

ERRENKOALDE-N EGOTEAK DITUEN ONURAK

BENEFICIOS DE PERTENECER A ERRENKOALDE



— **TRAMITE
LEGALAK**
TRÁMITES
LEGALES



— **SUSTAPEN
TURISTIKOA**
PROMOCIÓN
TURÍSTICA



— **FORMAKUNTZA**
FORMACIÓN



— **ONLINE
PROMOZIOA ERRENTE-
RIA ETA BERTAKO
DENDAK**
PROMOCIÓN
ONLINE ERRETERIA
Y SUS COMERCIOS



— **DIRU-LAGUNTZAK**
MERKATAL-
HITZARMENAK
AYUDAS Y
SUBVENCIONES
CONVENIOS
COMERCIALES




— **APARKALEKUA**
DOAN
PARKING GRATIS



— **OARSOALDEA VISA**
VISA
OARSOALDEA



— **DENDEN
ORDEZKAPEN**
ETA BABESA
REPRESENTACIÓN Y
DEFENSA DE
COMERCIOS



— **EKINTZAK URTE
GUZTIAN**
EVENTOS TODO
EL AÑO

errenkoalde

merkataritza, ostalaritza, eta zerbitzu elkartea
asociación de comercio, hostelería y servicios



Beheko kalea, 2
20100 ERRETERIA

Tfnoak: 943-51.45.53
687.343.180

Email:
errenkoalde@errenkoalde.org

www.errenkoalde.org

